

**2020KO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2020KO AURREKONTUEN MEMORIA

Legealdi berri guztien hasieran aurrekontuek berebiziko garrantzia dute, legealdiko gobernu planaren isla izango baitira, hain zuzen ere, eta aurrekontuak integratuko baititu legealdian zehar jorratu nahi diren herri proiektuaren ildo estrategikoak.

Nahiz eta aurrekontua bere horretan finantza administraziorako lan tresna bat izan, erabiltzen da urte barruan zer proiektu egin planifikatzeko eta zer lerro estrategiko jorratu behar diren gauzatzeko, eta lan tresna horrek markatzen du funtsean zer norabide jarraitu.

2020ko aurrekontuak, 2019-2013 legealdi hasierakoa izanik, Arrasateko herri proiektuaren jarraipenerako lerro estrategiak ezarriko ditu, hurrengo lau urtean jarraipena izango dutenak, hain zuzen ere.

Partida batzuetara errekurtsio garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, herri proiektuaren baitan nagusi izan diren eta aurreko legealditik datozen egitasmoei amaiera emango zaie ekitaldi honetan, eta horrek eskatzen du errekurtsioak bideratzea. Zer horretan aipatu daitezke, esaterako, Juan Arzamendi Musika Etxearen birgaitze prozesua amaitzeko bideratu den partida (219.344,73 euro) eta birgaitzearen ondoren egin beharreko ekipamendu inbertsioak (300.000 euro).

Kulturola egitaspora ere errekurtsio garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, 2019 urtean hasi da birgaitze prozesua. Proiektu estrategiko honi aurre egiteko, 500.000 euro bideratu dira 2020 urterako aurrekontuetan.

Horrela, garbi ikusten da 2020 urteko aurrekontuetan esfortzu handia egin dela hainbat proiektu borobiltzeko asmoarekin, hau da, aurreko legealditik amaitzeke geratu diren proiektu estrategikoak borobiltzeko eta, baita ere, legealdia zuzenduko duten beste partida estrategikoak irekitzeko, esaterako, jasangarritasunarekin zein klima aldaketarekin identifikatzen diren egitasmo estrategikoak aurrera eramateko.

Larrialdi klimatikoaren ondoriok ez dira berriak eta administrazio publiko gisa Udalari ere herria jasangarriagoa egiteko egitasmoak gauzatzea dagokio. Arrasateko herriak eraldaketa ekologikoa egiteko beharra dauka, hau da, energia eredu aldatzeko joan behar gara, energia berriztagarriak sustatzen eta karbono oina murrizten.

Larrialdi Klimatikoa gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetakoa da eta aintzat hartzea ezinbestekoa da politikak diseinatu eta garatzerakoan. Erakundeek politika eraginkorrak abian jarri behar dituzte eta herritarrekin elkarlanean gizarte ohiturak aldatzen joatea ezinbestekoa izango da, garraioan, hondakinen birziklapenan, plastikoen erabileran, kontsumoan eta abarretan.

Orain gutxi Arrasateko Udalak mozio bat onartu zuen larrialdi klimatikoaren inguruan aho batez. Bertan esaten zenez *“Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politiketan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu.”*

“Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurlaritzaren eragin esparru eta abalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.



Gure ustetan, ipar orratza abalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrea gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.”

Legealdi honetako ipar nagusia izango da eredu jasangarriago batera salto egiteko lehen pausoak ematea eta SHREC proiektu europarra ardatz hartuta zein Debagoiena 2030 plataforman parte hartuta, ildo estrategikoak jorratuko dira herrian hainbat eraldaketa gauzatzeko, aurrekontuetan ere isla izango dutenak.

Hor kokatzen dira esate baterako ekobulebarrarren proiektua, Etxezarreta natur eremuari balioa ematea, mugikortasun planaren gauzatea - oinezkoei lehentasuna ematen diena - bidegorri sarearen inplementazioa, argiteria publikoaren aldaketa led teknologiarara, herri barruan eta distantzia motzak egiteko autoaren erabilera murrizteko neurriak CO₂ isurketa mugatzeko helburuarekin, bizikletaren erabileraren sustapena edo herri irisgarritasunaren hobekuntza.

Arrasatek eraldatu beharra dauka gaur egungo gizartearen beharretara, eta herria jasangarriagoa izan dadin hainbat ildo estrategiko jarraitzen ditu aurrekontu honek.

Horretarako eta lan ildo estrategikoak lerrokatuta joan daitezten, legealdiko plana gauzatu da jasangarritasunaren irizpideak zein herritarren parte hartzea bertan txertatuz, izan ere, aurreko legealdian hasitako gobernantza eredu berriarekin jarraitu nahi da herritarren zein eragileen partehartzea bultzatuz eta hausnarketa prozesu kolektiboak martxan jarritz.

Zorrari dagokionez, aurreko legealdian zorra guztiz kitatu da, Arrasateko Udala zero zor egoera betean lagaz. Horrela, udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa osasuntsua da eta ahalbideratuko du legealdi honetan proiektu estrategikoak garatzea, esaterako, jasangarritasun irizpideekin planteaturiko kiroldegi berriaren proiektua. Proiektu berriei aurre egiteko eta erantzun arduratsu bat emateko, zuhurtziaz jokatu da aurrekontua planteatzerakoan.

Udala behartuta dago Foru Fondoaren eboluzioa, haren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzera. Aurten, nahiz eta foru fondoaren egoerak hobera egin duen eta aurreikuspenak onak diren, zuhurtziaz jokatzen jarraituko da, izan ere, gehiegizko baikortasun batek ondorio negatiboak izan ditzake.

Zuhurtasunak aurrekontu errealista eta arrazoizko batzuk planteatzera eramaten gaitu, proiektuak lehenetsiz, baina, aldi berean, bide emanez landutako ildo eta programa estrategikoak gauzatu ahal izatera legealdian, oreka bat bilatuz diru sarreren eta gastuen artean.

Agintaldi honetan bizikidetzak eta partehartzeak sail propioa izango dute.

2020 urteko aurrekontuen zati bat, aurten ere, parte hartzailea izango da. Aurreko legealdian abiatu zituen Arrasateko Udalak lehenbiziz aurrekontu partehartzaileak, eta horretarako, 250.000 euroko partida bat sortu zen, herritarrek proposamenak egin ahal izateko. Dagoeneko bi aldiz jarri da martxan aurrekontu partehartzailearen prozesua eta balorazio positiboa egiten da ekimen honen aurrean. Hori horrela, 2020 urteko aurrekontuetan ere, partehartze egitasmoa aurrera eramateko, 250.000 euroko partida bat jaso da.



Udal mailan aurrekontu parte hartzaileen esperientzia oso aberasgarria izan da, hautetsi zein teknikarientzat. Hala ere, bide bat dugu oraindik jorratzeko parte hartzearen alorrean eta, horregatik, legealdi honetan sail propioa sortu da, bizikidetza zein partehartzea uztartuko dituen. Parte hartzearen alorrean parte hartzearen ordenantza bat sortzeko prozesua jorratu zen aurreko legealdian, eta ekitaldi berri honetan, prozesua amaitu nahi da, izan ere, administrazioaren etorkizuna ezin da irudikatu parte hartzerik gabe. Naturaltasunez txertatzen joan beharko da parte hartzea herri administrazioan, eta horrek eskatzen du iraganeko inertziak apurtzea eta ordenantza baten bitartez arautzea, ahalbideratuz parte hartzea guztiz txertatua geratzea udal funtzionamenduan eta eragotziz, berau izatea momentuko gobernu taldearen nahiaren arabera.

Aurreko legealdian hainbat prozesu partehartzaile jarri ziren abian: Kirolaren mahaia, Gorostiza auzoan jolas parke estaliaren parte hartze prozesua, zuhaitza aukeratzea Arrasate pasealekuko plazan jartzeko, Arbolapeta-San Frantzisko prozesua, horma irudiak edo muralak aukeratzea herriko hainbat gunetan, Juan Arzamendi Musika Etxearen eraikinaren izen aukeraketa, ideia lehiaketa Biteri eta Itxaropena plazetako parkeak eraberritzeko, hain aukeraren artean bozketa egitea Makatzenako parkea berritzeko, Mugikortasun Plana egiteko parte hartze prozesua, hirigintzako aholku kontseilua, Kurtzetxiki parkearen diseinu aukeraketa, Monterron parkeko ideia lehiaketa, haurren kontseilua edo herrian ikurrina handi bat jartzeko kokalekua, besteak beste.

Ekitaldi honetan legealdi plana gauzatzeko bertan txertatuko dira zer ekintza edo egitasmok beharko duten, aurreikuspen baten barruan, prozesu partehartzaile edo hausnarketa kolektibo bat.

Parte hartzearen kultura baliagarria da ezberdinen artean akordioak lortzeko, baita ere, herritarrek administrazioarekiko duten distantzia txikitzeko. Horregatik, parte hartzearen arloan partida bat jarri da 20.000 eurokoa ordenantzaren prozesua bukatzeko eta aurrekontu partehartzaileak aurrera eramateko. Gainontzeko prozesu partehartzaileak hainbat partidatan jorratuko dira egitasmoen baitan.

Bizikidetzari dagokionez, 2016 urteko irailean Arrasateko Udalak herrian bizikidetza eraikitze lanketari ekin zion, abiapuntutzat hartuta herriko memoria berreskuratzea. 2016ko irailetik 2019ko martxo bitartean Memoriaren Mahaiak burutu eta bultzatu zuen lanketa, eta mahaia udalean ordezkariak politikoak duten alderdietako ordezkariak osatu zuten.

Mahaiaren helburu nagusiak izan dira Arrasateko memoria partekatua osatzea eta herri eremuan eraiki beharreko bizikidetza prozesu zabalagoa bultzatzea, elkarrizketa esparru honen oinarri gidariak elkarlana eta kontsentsua izanik.

Azken urteotan, mahaia urrats esanguratsuak eman ditu Arrasateko memoria partekatu bat eraikitze aldera eta herriko bizilagunen minak aitortze aldera. Hasiere batean mahaia diskretuki lanean aritu bazen ere, 2018ko azaroaren 8an egindako prentsaurrekoaren bitartez mahaia izaera publikoa hartu zuen. Bertan, mahaia harturiko konpromisoak ezagutzera eman ziren, bai epe motzerako, bai eta etorkizunari begira harturikoak ere.

Legealdi amaierarekin mahaiaren hiru urteko lanari amaiera eman zitzaion, bai eta bete gabeko konpromisoak eta urratsak izendatu ere. Hiru urte hauetan emandako urratsek eta egindako lanketak udal mailan bizikidetza eraikitze prozesu bat abian jartzea suposatu dute, baita ere, bizikidetza eraikitzeak elkarlana eta kontsentsuan oinarrituriko bide konplexua jorratzea suposatzen duela argi utzi ere. Jakinda prozesuan eragileek parte hartu dutela, orain arteko lan esparru nagusia elkarrizketa politikoa bermatu duen Memoria eta Bizikidetza mahaia izan da. Mahaiari nolabait jarraipena emateko baina era ofizialean, batzorde propioa sortu da eta aurrekontuetan partida



bideratu da bizikidetza lantzeko elkarrizketa politiko esparru segurua eraikitzeko, hau da, bizikidetzarekin zerikusia duten gai konplexu eta delikatuen inguruko iritzi desberdinak edo kontrajarriak izendatzeko aukera emango digun esparrua sortzeko, udalerrak egun dituen beharrak, aukerak eta zailtasunak identifikatu eta egungo testuingurua eta udalean ordezkaritza politikoa duten alderdiek aurreko legealdian harturiko konpromisoak kontuan harturik lan plangintza zehaztu eta garatzeko. Gidaritza hori burutzeko 15.000 euroko partidaa bideratu da.

2020 urteko aurrekontuak herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehentasuna ematen jarraituko du. Gainera, legealdi honetan gizarte zerbitzuak eta Gazteria saila uztartu egin dira Garapen Komunitarioa sortuz, bi sail hauen arteko harremana zein elkarlana fintzeko, eta hainbat zerbitzu zein arloetan sinergiak sortzeko. Gizarte ongizateko prestazioak mantentzeaz gain, ikuspegia zabaldu nahi da herriko beharrak asetzeko helburuarekin.

Pertsonak dira lehentasuna eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, laguntza eta programa sozialen mantentzea ezinbestekoa da, eta behar izanez gero horiek handitzeko konpromiso irmoa adierazi nahi da.

Horrela, laguntza berezia behar duten bazterkeria kasuak artatzeko aurrekontua bikoiztu egin da, partida pasatuz 20.000 eurokoa izatera. Tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzua ere 33.000 euro gehiago bideratu dira 58.000 euro izatera pasatuz aurrekontua.

Karterako dekretu berriak, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian onartu zuenak, gizarte zerbitzuen mapa berri bat ezartzen du Gipuzkoan, eta zehazten du zer zerbitzu eman behar dituzten udalek, baina modu amankomunean eta eskualdeka, eremu geografikoetan banatuta. Helburua, sare publikoaren antolaketa hobetzea da lurralde antolamendu batez bidez, eta eskaintza egokitzea estaldura helburuak finkatuz eta gizarte beharren eboluzioari egokituta, lurralde oreka bat lortuz.

Mapa hori eskualdeko herrien artean zehaztu zen pasa den legealdian eta hasierako akordio bat lortu da herrien artean adostasun batera iritsita. Arrasaten, eguneko zentro bat irekitzea proposatzen da, dependentzia baxua duten pertsonentzat bideratua. Garibai kaleko 1 zenbakian dagoen lokalean kokatuko litzateke Iturbide egoitzaren alboan. Horretarako 20.000 euroko partida egokitu da, proiektuaren idazketa ahalbideratuko duena.

Bestalde Etxez-etxeko zerbitzuaren partida 116.000 eurotan handitu da (guztira 570.000 euro) eta babesgabeko egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua ere 20.000 eurotan handitu da guztira 300.000 euro bideratuz.

Aurreko legealdian eta herri proiektuari jarraiki hainbat egitasmo berri jarri ziren. Ekitaldi honetan ere ekimen horiekin jarraitzea aurre ikusten da herri proiektuak jarraipena izan dezan. Ekimen berri horien artean hurrengoak daude besteak beste: elikagaian bankua, pasa den legealdian jarri zen abian eta 2020 urteko ekitaldian ere, dinamika horrekin jarraitzea aurre ikusten da. Horretarako 4.300 euroko partida egokitu da, lokalaren alokairua ordaintzeko bideratuko dena eta beste hainbat gastu estaltzeko erabiliko dena funtzionamendutik eratorritakoak.

Droga-mendekotasunarekin lotutako prebentzio ekintzak medio, guztira 40.000 euro, nabarmendu nahi da San Juan de Dios ospitalearekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean esparru honetan aurrera eramaten ari den ekimena. Helburu komunak eta/edo osagarriak izanik prebentzio eremuan substantzien gehiegizko kontsumoari aurre egitea, ekimen honen bitartez erakunde guztien baliabideak, esperientzia eta potentzialitateak batzen dira.



Alde batetik prebentzioa egiten da DBHko ikasleekin, bestetik, Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko gaixoak errehabilitatzea eta komunitatean txertatzea ere ahalbideratzen du ekimenak.

Bestetik, Lan ere Bai programa berritzailea abian jarri zen aurreko legegaldian, erreferentziatzeko hezitzaileekin kontsumoen inguruan zein estruktura falta duten gazteekin lanketa bat egiteko. Programa pilotu berritzaile honek Europako laguntza jaso du eta Hondarribia kalean udalak duen etxebizitza batean denez zerbitzua, gunearen hobekuntza egiteko 10.000 euro bideratu dira. Droga-mendekotasunarekin lotutako programa hauek estrategikotzat jotzen ditu Udalak ulertuta gazteak direla balarako etorkizuna.

Gazteen emantzipazio aukerak areagotzeko alokairu programa berri bat jarri zen abian pasa den legegaldian eta ekitaldi honetan ere 60.000 euroko partida bideratu da programaren jarraipena bermatzeko.

Aurreko legegaldian ere Txikitxokoa jarri zen abian eta legegaldi honetan ere zerbitzuarekin jarraitzea aurre ikusten da. Horretarako 39.000 euro bideratu dira. Bestalde, aurren parte hartzea ahalbideratzen duen umeen kontseilua egitasmoarekin jarraituko du Udalak eta 27.500 euroko kontu sail bat bideratu da helburu horrekin.

Legaldi honetan enplegua eta hezkuntza batzea erabaki da, ulertuta enplegu duin bat lortzeko lehen pausua formakuntza egoki bat dela eta kontutan izanda herrian badirela eskolak, lanbide heziketako zentroa, unibertsitatea, hizkuntza eskola, etab. Horregatik, arlo hauetan sinergiak lortzeko bateratu egin dira.

Aurreko legegaldian hasitako proiektu berri estrategikoekin jarraitzea izango da lehentasunetako bat, esaterako, Arbigara proiektua, zeinarentzat 13.000 euroko kontu sail bat jaso den. Proiektu honetan uztartzen dira lehen sektorea eta enplegu aukera lan munduan txertatzeko zailtasunak izan ahal dituen pertsonentzat.

Bestalde, klima aldaketarekin zerikusia daukan proiektu europearra (42.000 euro) ere sail honetatik eramango da kontutan izanda bertan parte hartzen duten eragile gehiengoaren enpresa zein hezkuntza mundutik datorrela eta Debagoiena 2030 plataformarekin uztartuko dela. Baita ere kontutan izan da Europear laguntzak gestionatzeko sailak daukan gaitasuna eta etorkizunean esparru berri hauetan egun existitzen ez diren lanbide berriak sortzeko aukera.

Arrasatera ezarpen ekonomiko berriak erakartzeko ekintzak ahalbidetzeko 10.000 euro ezarri dira eta aktibitateak, foroak eta lan azokak gauzatzeko 15.000 euro.

Ekintzailatza teknologikoa sustatzeko eta aurkeztuko den proiektu europear berriari bide emateko 22.000 euroko partida sortu da eta bide beretik TEC4COMPANIES proiektu honekin loturiko bekak ahalbidetzeko 7.500 euro, beraz, proiektuari bere osotasunean 29.500 euroko aurrekontua bideratu zaio.

Ikasketa amaierako proiektuak eta lanpostuetarako behar den prestakuntzaren inguruan sortutako programa mantentzen da (10.000 euro), baita ere enpresa berriak sortzen laguntzeko fondoak (35.000 euro) edota langabetuen formakuntza gastuetarako laguntza programa (30.000 euro).

Bestalde, langabetuak kontratatuzeko laguntza 87.500 eurotan ezarri da aurreko urteetako eboluzioari erreparatuta.



Jarraituko da kolaborazio publiko-privatua lan egiten eta Saiolan erakundearekin lankidetzara jarraituko du Udalak entitate honi egiten zaion aportazioa izanik 20.000 eurokoa.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua izanik, eraikinetan inbertsioak egiteko diru kopurua 30.000 eurotan indartu da 130.000 euro izanik azken kopurua. Gainera, Eibarreko hizkuntza eskolako gela desplazatuak Arrasatera ekartzea lortu zen aurreko legegaldian eta EPA eskolan kokatu da probisionalki. EPAra bideratzen den partida 29.500 eurokoa da, gainera hizkuntza eskolako harrera egiteko Udalak bideratzen du pertsonala ulertuta hizkuntza eskola publikoak Arrasateko herriari egiten dion aportazioa eta urteetan berau ekartzeko egon den eskaera.

Inbertsioek erakusten dute zer proiektu estrategiko egingo diren legegaldian, izan ere, kontu sail gehienak urte anitzekoak izan ohi dira.

Aurreko legegaldian mugikortasunaren bidetik hainbat inbertsio egin ziren (Makatzenako igogailua, espaloien zabalkundeak, berurbanizazioak), auzoetara igotzeko irisgarritasuna helburu zuten proiektu estrategikoak martxan jarri ziren, izan ere ahalbideratuko bai du herritarrek autoaren ordezkari aukera jasangarriago bat izatea eta oinezkoak hartzen du protagonismo zein lehentasuna.

Gainera, auzoei eman zitzaizkien garrantzia dezentralizazio irizpideak (jolasparkeak, irisgarritasuna) erabiliz eta auzoetan inbertsio garrantzitsuak eginez.

Herri jasangarriago bat lortze aldera eta oinezkoen lehentasuna ematea izanik helburua, herri barruan eta distantzia motzak egiteko kotxeen erabilera murriztu eta CO₂ gutxiko herri jasangarri baterantz joatea da helburua. Legegaldi honetan ere ildo nagusi horretatik doazen hainbat proiektu abian jarriko dira eta horretatik kontu sail estrategiko ezberdinak sortu dira:

Makatzenako igogailua amaitu ondoren, Erguineko igogailua da Udalak Mugikortasun Planaren baitan exekutatu duen hurrengo igogailu publikoa Arrasateko auzo altuetara irisgarritasuna hobetu eta bertako biztanlearen mugikortasuna errazteko. Obra hau exekutatzeko 2.298.527,36 euro bideratu dira.

Era berean, eta Mugikortasun plan berriaren baitan, behin Erguin auzoko igogailua bukatu ondoren Santa Teresa auzoan ere igogailuak jartzea aurre ikusten da. Proiektua garatzeko 40.000 euro bideratu dira.

Mugikortasuna eta jasangarritasunarekin jarraituz bidegorriaren jarraipena lehentasunezkoa da. Honenbestez, Araba etorbideko proiektua bukatzeko 596.950,33 euroko partida jaso da. Herriko sarrera nagusietako bat izanik, estrategikotzat jotzen da bidegorria saretu, espaloia handitu eta egun espaloien gainean dauden kotxeen aparkalekuak modu egoki batean bideratzea.

Oinezkoak jarraituko du protagonista izaten. Aurrekontuak badu 100.000 euroko partida Etxaluze Maala ekobulebarraren obrak exekutatzeko hasteko. Asmoa da Araba etorbideko bidegorriari jarraipena ematea eta pausoka herria zeharkatuko duen bidegorri sarea bukatzen joatea. Garraio publikoa zein bizikletaren erabilera hobetsi nahi dira autoaren aurretik eta horretarako azpiegiturak ere erraztu behar dute transizioa.

TAO erdialdean zein San Andres auzoan ezartzeko lanketari ere ekingo zaio legegaldi honetan, izan ere, helburua izango da autoen aparkaleku publikoen errotazio lortzeaz gain eta modu horretan tokiko merkataritzari laguntzeaz gain, biztanleek garraio publikoa hobestea autoaren aurretik. Modu honetan lortu nahi da bide publikoan autoaren presentzia gutxitzea, herritarrek



garraio publikoa zein bizikletaren erabilera hobestea eta herriko CO2 isurketa zein kontaminazio akustikoa murriztea herri jasangarri batetarantz pausoak ematen joateko.

Herritarren mugikortasunean ere segurtasuna garrantzitsua izanik, aurreko agintaldian bi egitasmoa nabarmendu daitezke, alde batetik, autoen eta garraio publikoaren abiadura moteltzeko radarrak, eta bestetik, Lanako biribilgunea egitearen egitasmoa.

Herri barruan jarritako radarrak egin den balorazioa positiboa izan da, izan ere, datuen arabera, harrapaketak % 67an jaiste lortu da bai eta autoen abiadura moteltzea. Datuak kontutan izanda 2020ko aurrekontuei begira, egitasmoarekin jarraitzea erabaki da eta radarretan zinemometroa alokatzeko 70.000 euroko partida jaso da.

Jarraituko da auzoetan haur parkeak hobetzen eta 80.000 euroko partida gorde da umeen kontseiluak planteaturiko parkour parkea egiteko. Umeen kontseiluak parkour parke bat planteatu zuen aldai parkearen inguruan eta berau bideratzea adostu da Obenerreka auzoko frontoian parkour parke bat jartzeko eskaladarekin. Gainera, hainbat haur parkeetan hobekuntzak egingo dira.

Etxezarreta basoaren erosketa gauzatu ondoren basoaren berreskurapena egiten hasteko 10.000 euroko kontu sail berri bat sortu da. Landa eremuko udal jabegoko lursailen mugaketa egiteko ere 30.000 euroko kontu sail berria bideratu da eta ibilgailuen mantentze gunean ur kontrola egiteko 3.000 eurotako partida berria jarri da.

Euskarari dagokionean, 2017an hasi zen Udala euskara eragileekin batera Kluster Soziolinguistikoaren laguntzarekin hizkuntza aktibazioaren inguruan lanketa bat egiten.

Euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoenaren sentsazioa jaso zen eragileekin egindako bileran. Hortik abiatuta, herrietan euskararen erabilera sustatzeko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea erabaki zen. Hautsak astindu eta estrukturak aldatzeko beharra ikusirik, modu eraginkor eta aktiboago batean lan egiteko moduak aztertzea egoki ikusi zen eta horretarako beharrezkoa da herri mailan elkarrekin jarduteko moduak aztertzea eta probatzea, lan egiteko modu berriak eraikitzea, gakoak identifikatzea eta metodologia sortzea. Prozesu honetatik eratorritako akzioei bide emateko partida 4.000 eurotan indartzea erabaki da, guztira 10.000 euro bideratuz.

Bestalde, ESEP zein Udal barruko erabilera plana berriztu ziren aurreko legealdi bukaeran eta plan hauen berrikuntzak eman dizkigu etorkizuneko ildoak eta urratsak.

Horrez gain, Kulturobaren proiekturen exekuzioari hasiera eman zaio 2019 urtean eta udal euskaltegiak lokal egoki baten eskariari erantzungo dion egoitza berria izango du Euskal Kultura ardatz duten beste eragileekin batera. Asmoa izan da euskaltegia gainontzeko elkarte zein eragileekin uztatzea eta ahalbideratzea euskara ikastera datorren pertsonak aukera izatea euskal kultura ezagutzea, euskal dantzak, bertsolaritza, trikitixa, etab. Kulturola eraikinaren obrei jarraipena emateko 500.000 euro bideratu dira.

Barne funtzionamendura begira, barne antolamendu berriaren ebaluazio egin da, bai antolaketa berriaren estrukturan parte hartu duten euskaltegiko bi langileekin baita ere euskara saileko arduradunarekin. Balorazioa oso positiboa izan da izan ere, euskaltegiko langile profesional eta kualifikatuak lagunduta, sinergiak sortzea ekarri du hainbat esparruetan, emaitza positiboak eta hobekuntza nabarmenak lortuz. Horrela, legealdi honetan ere antolamendu horrekin jarraitzea erabaki da.



Bestalde, euskal komunikabideak diruz laguntzen jarraituko da, hala nola, Goiena prentsa eta telebistarako 115.703 euroko partida bideratu da eta Goiena irratirako beste 21.000 euroko partida. Aldiz, Mondraberi aldizkari digitalari 21.000 euroko partida gorde zaio eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin sinatutako hitzarmena bide emateko 44.345 euroko kontu sail bat gauzatu da, zeinak Jokin Zaitegi beka ere barneratzen duen Nobel sari bat euskarara itzulia izan dadin ahalbideratzeko. Pasa den urtean nobel saririk egon ez zenez 2020 urtean ni beka ematea aurreikusi da eta bigarren beka hori kreditu globaletik ahalbideratuko da. Euskarako ekintzak gauzatzeko 25.000 euroko kontu sail bat bideratu da eta euskarazko diru-laguntzak emateko 88.374 euroko partida. Kontutan izan behar da ere, udal ekintzen euskarazko zabalkundea egiteko 68.000 euroko kontu sail berria ere bideratu dela.

Bestalde, linea berriak ireki dira legealdi honetara begira eta kulturaren esparruan apustu sendoak egiten jarraituko da, aipatzekoa da antzerki eskola baten sorrera doke antzerki taldearen laguntzarekin, horretarako 10.000 euro bideratu dira. Gainera, aurreko legealdian alderdi politiko guztien artean aho batez adosturiko eremu publikoan parekidetasuna lantzeko egitaspora 20.000 euro bideratu dira.

Lehen aipatu bezala, aurreko legealdiko proiektu esanguratsuenak, Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxea eraikinak kontutan hartzen dituenak, protagonista izaten jarraitzen dute 2020 ko aurrekontuetan. 500.000 euroko kontu sail bat zuzendu da Kulturola proiektura, hau da, Erlojuaren Eraikinaren birgaitze lanetara eta 219.344,73 euro Juan Arzamendi Musika Etxearen birgaitzea amaitzeko zein bere ekipamenduari aurre egiteko aurrekontua (300.000 euro). Kultura eta musikari egoitza propio eta txukunak emateko asmoarekin eskualdean ere erreferente kultural izango den proiektua gauzaten hasi zen 2018 urtean eta legealdi honetan amaituko da.

Apustua estrategikoa da, hainbat urteetan herritarrek eskatutakoa.

6.000 euroko kontu sail bat bideratu da aurreko legealdian hasitako muralak margotzearen egitasmoekin jarraitu ahal izateko artisten bidez bertako kaleak biziberritzen.

Kultur ekintzetarako 350.000 euroko partida mantentzen da, eta auzoko jaietarako diru laguntza 7.000 eurotan indartu da, 75.000 euro izanik partida osorik. Jaiekin jarraituz, San Juan jaietarako entzierrotarako hesi berriak erosteko 30.000 euro bideratu dira.

Aurreko agintaldian sailaren izena gaurkotu zen emakumearen ordezkotasuna kontzeptu bezala erabiliaz, izan ere, berdintasun politikak gizarte osoarentzat diseinatzen dira eta ez emakumeentzat soilik.

Zehar-lerrozkotasunaren logikaren baitan berdintasuna bultzatzeko gizartean pentsatzea ezinbestekoa da, helburua izanik gizartea estrukturaliki eraldatzea eta aukera berdintasuna bermatzea.

Osoko bilkurak 2018ko ekainaren 5ean onartu zuen mozio bat zeinak eskatzen zuen Udaleko sail guztietan berdintasun politiken inguruko formazio saioak egiteko errekurtsioak zuzenduko zirela. Berdintasun Sailean kontu sail espezifikoak sortu zen aurreko agintaldian eta berau mantentzea erabaki da beste sail estrategikoekin zehar-lerrozkotasuna lantzeko eta aipaturiko formazioa eskaintzeko helburuarekin. Berau jorrazteko 20.000 euro bideratu dira.



2006an Arrasateko Udalak “*Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Plana*” onartu zuen, hasierako apustua 2006-2010 plangintza izatea erabaki bazen ere 2013ra arte luzatzea erabaki zen 2012an.

Urte guzti hauetan Arrasateko Berdintasun Saitetik aipatutako planean jasotako helburu zein jarduera asko burutu badira ere, planaren ebaluazio eta dagokion jarraipena egiteko beharrian aurkitzen zen Udala eta lan hori 2018 urtean gauzatu zen. Horregatik indarkeria matxistaren kontrako bigarren plana egikaritzeko eta plan operatiboa martxan jartzeko 57.000 eurotako partidari bide eman zaio.

Bestalde, ekintzetarako partida 20.000 eurotan handitzea aurreikusi da, partidaren guztizkoa 120.000 euro izanik.

Merkataritzak eta turismoak sail propioa dute legealdi honetan. Turismo plana martxan da eta bertatik eratorritako linea bat garatzeko partida indartu egin da. Horrela, Turismo kooperatiboaren ardatza jorratzeko errekurtsuak 5.000 eurora egokitu dira, ikusi baita, Arrasatek baduela esparru horretan egiteko ibilbide zabala mundu mailan adibide den mugimendu kooperatiboa herrian bai dago.

Era berean herri sustapenerako ekintzak egiteko kontu sail berria sortu da, 12.000 eurokoa, ekintzak gauzatu eta herriari bizia emango dioten egitasmoak landu ahal izateko.

Jarraituko da herriko baserriarrei laguntzen, eta egitasmo erakargarriak antolatzen herritarrek herrian bertan kontsumitu dezaten, elikadura osasuntsua sustatzen eta km 0 ko produktuen sustapena egiten. Merkataritza eta nekazaritza ekintzak egiteko 13.000 eurotako partida mantendu da eta tokiko merkataritza indartzeko sustapen ekintzak egiteko partida 3.300 eurotan indartu da guztira 15.000 euroko partida jasoz.

Baita ere, herriko merkatarik elkartearekin elkarlanean, sinatzen den hitzarmenaz baliaturik herriko merkatariek herrian ere ekintzak egin ditzaten ahalbidetzeko 31.000 euroko aurrekontua jaso da, linea beretik 16.200 euroko diru laguntza linea mantendu da merkataritzari laguntzeko.

Alde zaharreko hirigintza plan berezia aldatzeko prozesuari ekiteko 30.000 eurotan indartu da partida, guztira 50.000 euro bideratuz. Tokiko merkataritzan eta batez ere alde zaharreko komertzioan zuzenean eragiten duen hirigintza plan normatiboa aldatu nahi da merkatarien eskaera historikoari bide emanez.

Arrasateko herritarrek herrian erosi dezaten eta herria girotu eta berau txukun mantentzeko partidak ere aipatzen dira, ulertzen bai da herri atseginak laguntzen duela ere tokiko merkataritza. Ildo honetatik doaz Gabonetako argiak jartzeko partida (30.000 euro), Gabonetako txirrista (26.000 euro) antolatzeko ekimena edo lorategien mantentzerako partidaren indartzea 10.000 eurotan.

Kirolari garrantzia berezia eman zitzaion aurreko agintaldian: Uarkapeko gimnasio berria ireki zen, kirolaren plan estrategikoa gauzatu zen eta etorkizunera begira kiroldegi berri bat egiteko aurreproiektua ere garatu zen, besteak beste. 2020ko aurrekontuetan jaso da kiroldegi berriko proiektua garatzeko hausnarketa kolektiboa prozesu partehartzaile baten bitartez bideratu eta egitasmoarekin jarraitzeko 25.000 euro.



Kirolaren plan estrategiakoa eta kirol mahaia aurreko agintaldian gauzatu ostean 2020ko aurrekontuetan 10.000 euroko partida mantendu da Plan Estrategikoaren ekintzak egiten jarraitzeko.

Musakolako gimnasioko aholkularirako, SOAF zerbitzurako eta Musakolako gimnasioko aholkularirako partida mantentzen da 123.350 eurokoa, ulertuta zerbitzua herritarrentzat aproposa dela.

Bestalde, Iturripeko lurraren berriztatzea, Mojategiko belar artifizialaren aldaketa eta beste zenbait inbertsio egin ostean kirol saileko inbertsioek 80.000 euroko partida izango dute 2020ko aurrekontuetan.

Aipatu eta gero 2020ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, zenbatekoak agertuko ditugu aurtengo ekitaldirako aurreikusiak, bai udalarena, bai Iturbide egoitza erakunde autonomoarena; hona hemen horiek:

Udalaren aurrekontua

34.829.173,25 euro

Iturbide Egoitzaren titulartasuna eskualdatu egin denez KABIA foru erakundera, aurrekontu orokor finkatua da udalaren aurrekontuaren kopuru berbera, hau da, **34.829.173,25 euro**.

2020ko ekitaldiko zenbatekoak alderatuta 2019an onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau daukagu:

ALDERATUTA 2020-2019 AURREK. (kopuruak mila euroan)

ERAKUNDEA	ARREK. 2019	ARREK. 2020	ALDAERA	2020/2019
Udala	33.379,34	34.829,17	1.449,83	4,34%
Iturbide (*)	1.772,36	0	-1.772,36	-100,00%
Aurrek. orok. (*)	35.145,70	34.829,17	-316,53	-0,90%

(*) Iturbideko titulartasuna eskualdatzearen ondorioa, Kabian sartzegatik

Aldez aurretik, kontuan hartu behar efektu itxuraldatzailea, alderatu behar direnean 2019ko eta 2020ko ekitaldiak, Iturbide Egoitza erakunde autonomoan gertatua, eta haren intzidentzia, halaber, aurrekontu orokor finkatuari begira, izan ere, 2019an aurrekontuan jaso zen ekitaldiaren erdi bat, eta KABIAN sartu denez 2019ko apirilaren 1etik aurrera, 2020an ez da kontsignatu aurrekonturik (erakunde autonomoaren desegite formalaren zain).

Efektu atipiko eta berezi hori kenduta, kopuruak aztertuta ikusi daiteke udalaren 2020ko aurrekontuen proiektuaren aurreikuspenek **igotzen dutela % 4,34 iazko kopuruaren aldean**. Bistan denez, aurrekontu orokor finkatuak, zuzenduta Iturbide Egoitzaren aurrekontuaren efektua, ez baitu sartzen beste erakunderik, bakarrik udalarena, eramaten gaitu % 4,34 handitzera. Azken batean, 2020an baieztatzen da hazkunde txikiko zikloa, 2018an hasia udal aurrekontuetan, zeinaren jatorriak erantzuten baitio udal finantzaketako foru funtsaren diru sarrerak hazteari (zuzeneko erlazioa ziklo ekonomikoarekin) eta diru sarrera berezi batzuei, lortu behar direnak



hirigintzako operazio jakin batzuegatik (errepikatuko ez direnak hurrengo ekitaldietan), baita diru laguntzak ere Kulturolako jarduketak egiteko.

Orain, xehetasun handiago batez, aztertuko ditugu udal aurrekontuaren gastuen eta diru sarreraren partida nagusiak.

Hasiko gara Arrasateko Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

GASTUEN AURREKONTUA 2020

2020ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 34.829.173,25 euro, eta % 4,34ko igoera du iazkoaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2020ko aurrekontuak kapituluaz kapitulu, aurreko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2020EKO AURREK. - 2019KO HASIER. AURREK

Kapitulua	ARREK. 2019	% G/B	ARREK. 2020	% G/B	Aldea	2020 /2019
I Pertsonal gastuak	11.508,6	34,48%	11.917,2	34,22%	408,6	3,55%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	11.277,6	33,79%	11.604,0	33,32%	326,40	2,89%
III Interesak	0,5	0,00%	0	0,00%	-0,5	-100%
IV Transfer. arruntak	4.891,4	14,65%	4.729,4	13,58%	-162,0	-3,31%
V Kreditu globala	325	0,97%	311,9	0,90%	-13,10	-4,03%
VI Inbertsioak	4.071	12,20%	5.375,8	15,43%	1.304,8	32,05%
VII Kapital Transf.	807,1	2,42%	777,0	2,23%	-30,1	-3,73%
VIII Finan. Akt. Aldak.	180	0,54%	90	0,26%	-90	-50%
IX Maileguen amortizazioa	318,1	0,95%	23,9	0,07%	-294,2	-92,49%
Guztira	33.379,3	100%	34.829,2	100%	1.449,7	4,34%

(Kopuruak mila euroan adieraziak)

Koadro hau aztertu, eta ikusiko dugu, portzentajeetan, udalaren gastu globalari buruz, 2020ko aurrekontuak ia ez duela aldaketa esanguratsurik 2019ko urtearen aldean, eragiketa arrunten eta kapital eragiketen inportantziari dagokionez. Aldaera esanguratsua da inbertsioen VI. Kapitulua pisu erlatiboa gehitzea (+3,23 puntu ehunekoetan). Gainerako kapituluak, berriz, gutxitze txiki bat dute: pertsonal gastuetan (ehuneko -0,26 puntu), ondasunak erostea eta zerbitzu arrunten kapituluaren (ehuneko -0,52 puntu), eta transferentzia arrunten IV. kapituluaren (ehuneko -1,07 puntu) eta kapital transferentzien zazpigarren kapituluaren, kapital operazioena,



(ehuneko—0,07 puntu), baita ere, finantza zorraren garrantzia gutxitzea (interesak+amortizazioak), jaisten da ehuneko -0,88 puntu).

Azken batean, nahiz eta partida mailan egon daitezkeen alde txiki batzuk, aipagarriak direnak, 2020ko aurrekontuaren egiturak, kapitulu mailan, apenas erakusten du aldaketa aipagarririk 2019ko ekitaldiaren aldean.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen udalak 2020an:

- **34,22 €** erabiliko dira **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira udalkide liberatuen ordainketak, haien egitekoak betetzeko udalean.

- **33,32 €** behar dira gastu arruntei erantzuteko, **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortuak.

- **0 €** dira finantza entitateekin hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).

- **13,58 €** dira **transferentzia arruntak edo diru laguntzak** finantzatzeko; horietatik 6,99 euro dira zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (berez udal zerbitzuak dira).

- **15,43 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.

- **2,23 €** dira inbertsioak diruz laguntzeko **edo kofinantzatzeko, beste administrazio edo erakunde batzuek** exekutatakoak.


- **0,26 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru sarreren kopuru berdina).

- Azkenik, **0,90** dira **kreditu globaleko** kopuruak finantzatzeko, bere baliabide ikuspegi bikoitzean ustekabeak finantzatzeko (0,10 euro) eta funts bat, 2020ko aurrekontuen kontura egiteko diren jarduketak, herritarrek aukeratuak parte hartze prozesu batean (0,72 euro).


Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zer eboluzio duen 2020ko gastuen aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2019ko aurrekontuaren aldean, baita ere, 2020ko gastuaren portzentaje banaketa, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraituz.



2019 ETA 2020KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2020KO AURREKONTUA





Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2020ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2019eko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 11.917.129,56 euro

Gehitzen da % 3,55 2019ko aurrekontuaren kopuruaren aldean, eta handitzen da 408,5 mila euro 2019ko aurrekontuaren zenbatekoari dagokionez.

Une honetan tramitazio fasean daude Estatuko aurrekontu orokorrak, 2020 ekitaldikoak (oinarrizko legeriaren izaerarekin, derrigorrean betetzekoa, azken urteotan Estatua ibili da erregulatzen, bere aurrekontu orokorren bidez, soldaten berrikuspen muga baimenduak) tramitatzen, ez baitago norabide zehatzik 2020 aurreikuspenak kalkulatzeko, eta banakako soldata kostuen estimazioak egin dira, sailez sail kapitulu honetan, 2019 oraingo plantilaren arabera, aurreikuspenik gabe ezer gehitzeko.

Aurrekoa gorabehera, gaur esku artean dugun informazioan oinarrituta (akordioa enplegu publikoa hobetzeko, sinatua Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren eta ordezkariak sindikalaren artean), bada espektatiba bat edo iragarri bat soldata berrikusteko, zeina izan daitekeen % 2/2,5 gehitzea 2019ko ordainketei buruz. Hortaz, soldata berrikustearen kontingentzia bat betetzeko, sartu da partida bat, funts edo erreserba izaera duena, izango dena alde negoziatzaileek (erakundeen ordezkariak eta ordezkariak sindikala) lortu ditzaketan akordioak finantzatzeko. Funts horren zenbatekoa da gutxi gorabehera 2019ko soldata masaren % 2,2, zenbatekoa, zeinak borobilduta 250.000 euroko balioa baitu.

Soldata berrikustearen kontingentzia funts horretaz gain, badira beste faktore batzuk azaltzen dutenak zergatik handitzen den kapitulu hau, eta nagusiak dira hauek:

- Udalbatza berriaren dedikazioak gehitzea
- Igoerak batez bestekoaren gaintik Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen sailean, Pertsonal sailean, Kirol sailean eta Gizarte Ongizatearen sailean.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, albora utzi gabe pertsonal dedikazioak berriro esleitu izana hainbat sail eta batzordetara, udal plantilan ez da amortizatzen lanposturik eta ez da sortzen lanpostu berri egonkorrik. Edozelan ere, egoeraren arabera, errefortzuak jasotzen dira aldi baterako langileak kontratatuta, zerbitzu jakin batzuen behar puntualak betetzeko (pertsonala, gizarte ongizatea, kirolak eta abar).

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 11.604.008,00 euro

Igotzen da % 2,76, 2018ko aurrekontuaren aldean; gastu handiagoa, 311,4 mila euroko zenbatekoa. Igoeraren azalpena, hasieran onartutako 2019ko aurrekontuari dagokionez, zenbakietan, partida hauetatik dator:



- **Partida berria, 10 mila euroko** kopuru batekin, aurre egiteko antzerki eskolaren gastuari, zeina kultura sailetik abian jarri gura den 2020ko urtean.
- Gastuak mantentzen dira **Zerrajerako erlojuaren eraikinaren oraingo erabiltzaileak behin-behinekoz kokatzeko**, Kultura proiektuaren exekuzio obrek iraun bitartean, **19 mila euro** lokalak alokatzeko eta **15 mila euro** funtzionamendu gastuetarako.
- **Diru kopuruak gehitzea garapen komunitarioaren saileko hainbat programa egiteko**, zehazki etxeko laguntza zerbitzua (▲116 mila euro, zerbitzu azpikontratatuaren prezio berriaren ondorioz eta esleipen irizpide berrien ondorioz), etxeko laguntza zerbitzua tutoretzapeko etxeetan (▲33 mila euro, tarifa berrien eta janari zerbitzua berrantolatzearen ondorioz), eta aholkularitza zerbitzua adingabeen babesgabetasun egoeretan (▲46 mila euro, deitu behar den lizitazio berriaren aurreikuspenaren arabera), eta ematen du guztira **195 mila euroko** igoera bat.
- **Partida berria:** diru kopurua da 25 mila euro, ekipamendu ofimatikoak (kopiagailuak eta inprimagailuak) errentan hartzeko. Oraingo ekipamenduak, jabetzan erosiak, hasi dira iristen bizitza erabilgarriaren azkenera, eta hornidura sistema hori aukeratu da, erosi beharrean, ekipamenduak berrizte aldera, datozen urteotan aurre egin beharko baitie udalak. Hala, lortu da diru kopuru handi bat ordaindu behar ez izatea, eta horrela, edukiko du parke eguneratu bat etengabe.
- Hezkuntzako jardueren partida gutxitu egin da 15 mila euroan, “bertsolaritza eskola”ren kudeaketan egon den aldaketaren ondorioz, zeina pasatu baita udalak ikastetxei emandako zerbitzu bat izatetik diruz laguntzeko den jarduera bat izatera, Hezkuntza sailaren dirulaguntza programen bidez.
- **Lan R-Bai proiekturako partida**, diru kopurua da **161.487 euro (▲55 mila euro)**, zeinak jasotzen baitu "lan-r-bai" programa antolatu eta exekutatzeko kontratuaren finantzaketa, enplegu, prestakuntza eta hezkuntza (poefe) programa operatiboaren esparruan, tokiko erakundeentzat pertsona ahulenak gizartzeratzeko (ap-poefe), adjudikatua Kalexka gizarte-hezkuntzako esku hartzearen elkarteari, 154.587 euroko zenbateko batekin, baita ere, beste aholkularitza gastu batuzk programa horri buruz, programa hori kudeatzen sortu daitezkeenak.

Proiektu horren helburua da ibilbide inklusibo pertsonalizatuak sortzea prestakuntza-enpleguaren bitartez, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen egokituta, gizarte-hezkuntzako laguntza batez, zeinak ahalbidetuko baititu tresnak, bitartekoak eta trebetasunak eskuratzea, beharrezkoak heziketa normalizatu batera iristeko eta lan merkatua (babestua edo normalizatua) iristeko.

- **Partida berriak**, proiektu bana egiteko, Europako funtsek finantzatuak
 -) **INTERREG SHREC proiektua (onartua)**, diru kopurua 2020an **42 mila euro**: Proiektuak iraungo du 4 urte, 2019an hasita, eta amaituko da 2023an; 2020an finantzaketa du 35 mila eurokoa. Finantzaketa osoa izan liteke 140.000 euro inguru (gastu osoaren % 85 bat). Haren helbura da, beste europar parte hartzaile batzuekin elkarlanean, CO₂ emisioak gutxitzea, eta horretarako,



erabiltzea energia berriztagarriak, identifikatzea praktika onak eta plan bat diseinatu eta ezartzea.

- J) **TEC4COMPANIES proiektua (dirulaguntza barik oraindik)**, gastua du 2020an **22 mila eurokoa**, eta finantzaketa **17.625 euro**: Beste proiektu bat da, 28 hilekoa (2020ko urritik 2023ko urtarrilera arte). Finantzaketa osoa izan liteke 88.000 euro inguru (gastu osoaren % 75 bat). Haren helburua da MUn Ingenieritza gradoko ikasleen karrera amaierako proiektuak garatzea (30 ikaslerentzat), garatutako ideia horien bidez enpresak sortu ahal izan ditzaten, merkatuan jarduteko. Ikasle bakoitzak beka bat izango luke, 6.000 eurokoa, eta, gainera, hartuko lukete udala, Garai parke teknologikoa eta Mu, eta beste herrialde batzuetako kideak (Portugal eta Frantzia).

Azkenik, adierazi behar da, lan premisa moduan, kapitulu honen aurrekontua egiteko, irizpide bat erabili dela ez gehitzeko borondatezko gastua, oinarrituz 2019ko bukaeran izan litekeen gastuan, eta zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzea; horrek dakar aldaketa horiek, erregela horri buruz, erantzuten diotela izaera berezi bati eta oinarritzen direla lehentasunen balorazio batean.

HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 0 euro

Kapitulu honetan nabarmendu behar da ez dagoela gasturik mailegu interesen kontzeptuan, udal gastuari dagokionez, udalak 2019ko ekitaldi hasieran maileguen amortizazio aurreratua egin izanaren ondorioz; zorpetze zero lortu zen udalaren kontuetan aurreko legealdiaren amaieran (2015-2019).

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.729.392,00 euro.

Gutxitu da % 1,07 (-162 mila euro) 2019an hasiera batean onartutako aurrekontu kopuruari buruz. Nahiz eta partida jakin batzuek behar duten azterketa eta azalpen osagarri bat, 2020ko aurrentuan jarritako aldaketa datuek, 2019ko kopuruaren aldean, balio digute agertzeko aurrekontu agiri berrian izaera zorrotza eta estua aplikatu dela, kapitulu honetako gastu partidetarako (batez ere jasotzen ditu zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta diru laguntzak).

Kapitulu honen alderdi aipagarriak dira:

- Zerbizu mankomunatuaren kuotei buruz, 2019ko ekitaldian ez bezala, ez daukagu 2020ko ekitaldirako aurrekontu proiektuaren zirriborroa; horregatik, kopuru estimatu batzuk jaso dira, gehituta % 1ean 2019ko aurrekontuaren aldean. Partiden zenbatekoa, 2019an Debagoieneko Mankomunitatearen bidez eman behar diren zerbitzuak finantzatzeko, 2.434.950,00 euro da (22,5 mila euro gehiago). Kostu nagusiak datoz hondakinen bilketa zerbitzutik, kudeaketa zerbitzutik,



tratamendu zerbitzutik eta Garbigune zerbitzutik, zeintzuen kostu globalizatua baita 1.924.650,00 euro (kostu osoaren % 80 ia).

- Enplegu sortzaile diren sailei ematen zaien lehentasunezko izaera mantentzen bada ere, udalak bultzatutako programen diru kopuru garrantzitsuak gutxitu egin dira, azken urteotan nabarmen gutxitu direlako langabeak kontratatzeke laguntzen eskaerak. Edozelan ere, diru baliabideak, “langabeak kontratatzeke laguntza programetarako, langabeen prestakuntza gastuetarako, lanpostu berriak sortzeke, titulatu berrien praktiketarako enpresetan (bekak) edo karrera bukaerako proiektuetarako” **guztira dira 182.500 euro.**

- **Diru kopuru berdinez mantentzen dira partidak: Gizarte Larrialdietarako Laguntza programak finantzatzeko eta Larrialdietarako laguntzen berezko funtsa finantzatzeko**, zenbatekoak hurrenez hurren, 300.000 euro eta 20.000 euro, baina aurreko ekitaldietan bezala, horien diru kopuruak **gehitzeke konpromisoarekin**, baldin eta laguntzen eskarien eboluzioak hala eskatuz gero, ikusita zer **lehentasun** markatzen dion **gobernu taldeak laguntza behar duten herritarren beharrei erantzuteko.**

- Diru kopuruak **mantentzen dira diru laguntza izendunak emateko, esleituta daudenak Arrasate Musikali, 325 mila euro.**

- **Gutxitzen dira Goiena – prentsa eta irratia, eta Arkodiren dirulaguntzak, 68 mila euroan;** zenbateko hori pasatzen da oso-osorik II. kapitulura, joango direnak hedabide horietan publizitatea egiteko.

- Memoriaren adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, 2020rako **jarraitzen dugu diru laguntza programekin**, baita ere, 2019ko aurrekontuan izaera nominatiboko diru laguntzekin, iazkoaren antzeko diru kopuruekin. Edozelan ere, kopuru handia delako, komeni da gogoratzea **aurrekontuko baliabideek**, udal batzordeen eta udal sailen diru laguntzen programak finantzatzeko direnak (sartu barik gizarte larrialdietako laguntzak, nagusiki EJK finantzatuak), **1,6 milioi euro egiten dutela**

- Halaber, **udaleko talde politikoei ordaindu beharreko kopuruek eta kontzeptuak** gutxitu egin dira apur bat, legegaldi honen hasieran ezarritako erregulazioaren ondorioz, osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (2019/07/09an), eta aurreko legegaldian baino talde bat gutxiago dagoelako (pasatu gara 5etik 4 talde izatera); hala, partidari esleitu da 200.000 euroko kopuru bat. Edozelan ere, kopuru hori aurrekontuan jaso da kontuan hartuta zenbat bilera egin den, eta zenbat etorri diren bileretara hilabete gutxi batzuetan, erregulazio hori aldatu eta gero; hortaz, jaso den zenbatekoari buruz, litekeena da aldaketaren bat behar izatea, kontuan hartuta zenbat bilera egingo diren eta benetan zenbat etorriko diren urte osoan.



BOSGARREN KAPITULUA – KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEAK - 311.873,40 EURO

2015era arte, aurrekontuetan jasoa bigarren kapituluan, 86/2015 Foru Dekretuaren ondorioz, Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua, sortu da kapitulu berri bat, bosgarren kapitulua, “Kreditu Globala eta beste ustekabe batzuk” izenekoa, zeinaren bidez aukera dagoen ekitaldian egon daitezkeen beharrak finantzatzeko, horiek ez badaude jasota hasieran onartutako aurrekontuan.

Era berean, kapitulu honetan partida bi jaso dira:

- Orokorra da ustekabeei erantzuteko edo egokitze behar txikiei erantzuteko, zeinak izango duen 35.085,40 euro, 2019ko aurrekontuan onartutakoa baino txikiagoa.

- Espezifikoa da aurrekontuen partizipazio prozesuan aukeratutako proiektuei erantzuteko, martxan jarriak udalean 2018az geroztik, herritarren parte hartzea erraztu eta bultzatzeko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko interes orokorrari eragiten dizkieten proiektuetan. Esleitzen da 2019koaren antzeko dotazio bat, 250.000 euro, azkenik aukeratzeko diren proiektuak finantzatzeari erantzuteko. Amaituta epea proposamenak aurkezteko, aldeaz aurreko azterketa teknikoa eginda proposamen horien bideragarritasun tekniko edo ekonomikoari buruz, geroago herritarrek emango dute iritzia botoen bidez.

Hortaz, erabaki horrek zehaztuko du zer interbentzio finantzatu diren, eta kontabilitate egokia egiteko, beharko da egokitu aurrekontuetara (pasatuko dira, egokiak badira, aurrekontuetako kapituluetara, eta erantzungo zaio proposatutako gastuaren izaera ekonomikoari).

Memoria hau idazten ari garen unean, ez dakigu oraindik **partida zelan banatuko den, 2019ko ekitaldiari** dagokionez, ezen aurreikusten baita onartzea abenduaren lehen egunetan.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK - 5.375.822,42 euro

Igo da % 32,05 (1.304,8 mila euro gehiago), 2019ko aurrekontuan kapitulu honi esleitutako kopuruari buruz.

Azken urteotan egindakoekin alderatuta, non inbertsio garrantzitsuenen partidak baitziren “Juan Arzamendi Musika eskola” eta “Kulturola proiektua berritzea” proiektuak finantzatzeko, 2020 urterako inbertsiorik garrantzitsuenena da, dirutan, “Erguingo igogailua”rena, **2.298.527,36 euroko** diru kopuru batekin, hau da, VI. Kapitulu osoaren % 42,75.

Arrasateko udalerriko mugikortasun eta irisgarritasun planek jasotzen dute komunikazio bertsikaleko esku hartzen bana exekutatu behar direla udalerriko hainbat lekutan. Horietako lehenak ezartzen du, baita ere, lehen tasun irizpide orientatibo bat esku hartze horietako bakoitza aurrera ateratzeko orduan.



Aurrekoarekin bat etorrira, Erguin auzoari dagokion prozesua hasi zen. Lehen urrats moduan proiektua idatzi zen, zeinak jasotzen baitu 4 igogailuen sistema bat, auzoko kale guztiak lotzen dituen goitik behera. Hori oinarrian hartuta, obrak adjudikatuta daude dagoeneko. Partida honen xedea da urte anitzeko proiektu horrek sortzen dituen finantza beharrei erantzutea.

Bestaldetik, garrantzi handia izango dute **"Juan Arzamendi Musika eskola" eta "Kulturola proiektuaren erreforma"** proiektuak finantzatzeko diren partidak, diru kopuruak izanik 519.344 euro (ekipamendua barne) eta 500.000 euro, hurrenez hurren (aurrekontuaren inbertsio osoaren % 19).

Proiektuetako lehena adjudikatu zitzaion Lurgoien SAU enpresari, osoko bilkurak hartutako erabakiz, 2018/01/16an, guztira zenbatekoa 5.550.012,51 euro. Gainera, proiektuare exekuzioarekin lotuta kontuan hartu behar da adjudikatu zitzaiona LKS Ingenieria S.Coop. enpresari proiektua idazteko eta obren zuzendaritza lanak egiteko, 238.975 euro, baita ere, kalitate kontroleko lanak eta entseguak, adjudikatuak GIKE SA enpresari, 40.751,59 euroan. Hiru adjudikazio horiekin, 2019ko ekitaldian onartutako aldatetarik gehituta, ezen sortu baitute guztira obren kostuaren gehikuntza bat, 252.580,95 eurokoa, "Juan Arzamendi Musika eskola" erikina birgaitzeko proiektuaren bukaerako kostua, aurreikusi daitekeena, 6.082.320,05 euro izango da. Horri buruz, esan behar da 2020ko aurrekontuan esleitutako kopuruaz kostu horien % 100 estaltzen dela.

Halaber, 2020an abian jarri beharko da altzariak eta ekipamendua hornitzeko kontratua; hortaz, 2020ko hasieran entregatu dadin eta udalaren esku jarri, era koordinatuan eta obren exekuzio/amaiera erritmoari egokitu. Ekipamendua finantzatu nahi da 2020ko aurrekontuaren kontura.

Proiektuetako bigarrena, "Kulturola" eraikinari buruzkoa, duela gutxi hasi da, 2019ko urrian. Udaleko Osoko Bilkurak, 2018ko uztailaren 10ean egindako bilkuran, onartu zuen eraikina birgaitzeko proiektua, 6.576.641,92 euroan, baita ere, obren kontratazioaren espedientea hasia. Geroago, obrak adjudikatu zitzaizkion osoko bilkuran, 2019ko otsailaren 5ean, 6.149.160,18 euroan, BEZa barne, eta 16 hileko exekuzio epe batekin. lokaletako erabiltzaileak birkokatu behar direla-eta lanak ezin izan direnez hasi 2019ko urrira arte, aurrekisten da lanak amaitzea 2021eko lehen zatian.

2019ko aurrekontu dotazioa gehituta 2020ko ekitaldirako aurreikusia, finantzatuta egongo lirateke 5.386,00 mila euro inguru (guztiaren % 85,7), eta gainerako zenbatekoa izango litzateke 897,1 mila euro, finantzatuko direnak 2021eko aurrekontuaren kontura, baina jarri daitezke funts gehigarri batzuk, 2019ko ekitaldiaren likidaziotik datozen soberakinak banatzen badira. Azken batean, ematen du proiektu honen finantzaketa ere nahiko ondo bideratuta dagoela, hori guztia uko egin barik beste administrazio batzuen finantzaketari, kontuan hartuta ondasun higiezinaren izaera eta kalifikazioa, katalogatua baitago babes bereziko ondare.

Tamainako beste proiektu batzuk, aipagarriak, hauek izango lirateke:

- Garibai 1, etxabeko birmoldatze lanen partida (Eguneko Zentroaren Zerbitzua) - 20.000 euro. 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, onartu zuen gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa. Beste gai batzuen artean, arau horrek jasotzen du EAEko



administrazioek zer zerbitzu eskaini eta bermatu behar duten. Beste zerbitzu batzuen artean, zeinen prestazioa den udalen eskumena, eguneko zentroaren zerbitzua dago (1.7), zehazki “**eguneko laguntza zerbitzua ematea pertsona nagusiei**”. Zerbitzu hori erabiliko da orokortasunez edo izaera irankorrez, eta zuzendua dago arriskuan dauden edo mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusiei (I. gradoa, puntuazioa 25 eta 39 bitartean mendekotasun balorazioaren baremoan).

Zerbitzuaren prestazioak izango dira: Informazioa, bitartekaritza-bitartekotza, esku hartzea hezkuntza eremuan eta psiko-gizarte eremuan (entzute aktiboa eta emozioen kontrola). Izaera osagarritz jaso ahal izango dira ere mantenu zerbitzuak (janaria) eta higiene pertsonala.

Gaur egun, Arrasateko Udalak ez du ematen zerbitzu hori. Behar horri erantzuteko, pentsatuta dago zerbitzua abian jartzea 2019an, eta asmoa da lokalak kokatzea Garibai 1eko beheko solairuan. Horretarako, egokitze obrak egin beharko dira lokalean, eta planteatzen da 2020ko aurrekontuetan partida bat jartzea, horiek finantzatzeko.

- **Araba etorbideko urbanizazioa – 596.950,33 euro.** Araba etorbidea da bide nagusietako bat herrira sartzeko. Oraingo itxierak, diseinua eta ezaugarriak ziren errepide baten berezkoak. Helburua denez inguru hori egokitu eta berritzea, 2019ko urtean berriro aztertu zen lehendik zegoen proiektua, eta geroago obrak lizitatu ziren, 2019 eta 2020 artean egin beharrekoak, urte anitzeko izaeraz. Lanak adjudikatu zitzaizkion Construcciones Moyua, SL enpresari, 1.609.127,16 euroan, eta exekuzio epea da zazpi hilekoa. Partida honen dotazioak jasotzen du zer zenbateko behar den obra guztiak 2020an exekutatzeko.

- **Zalduspeko urbanizazioa - 50.000 euro.** Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) jasotzen du Zalduspe eremua udal ekimeneko hirigintza interbentzio bat moduan. Prozesua hasi zen duela denbora bat, eta garatzen joan dira beharrezko alderdi juridikoak eta teknikoak obrak bere osotasunean hasteko. Horietako batzuk, eraiste batzuk eta obra txikiren bat, dagoeneko exekutatu daude, baita ere, alde aurreko lanak lurzoru kutxatuei buruz.

Urtero partida bat txertatzen da halako interbentzioak exekutatzeko jarraitzeko, bukaerako behin betiko urbanizazio obra egin baino lehen.

- **Etxaluze Maala ecobulevar – 100.000 euro.** Proiektu hau diseinatu da udalaren mugikortasun planaren gomendioez, eta haren xedea da herritik bertatik proiektu global bat ekartzen jarraitzea, planetaren defentsa egitea baino ez dena.

Testuinguru horretan, jarraitzen da aurrera egiten ibilgailuak kentzeko gure lurraldeko hainbat lekutatik, oinezkoen mesederako eta beste garraio modu ez motorizatu batzuen alde. Eta guztiz baztertu ezin diren lekuetan, behintzat neurri murritztaile batzuen alde agertzen da, ezen gutxitzen baititu erabiltzaile izan daitezkeenak eta noizean behin gertatzen diren zirkulazio handiak.

Erakuntza proiektuak eragiten du erdiguneko hainbat eremutan (Kontzeziño, Garibai, Biteri, Grupo San Juan, Villa Amparo eta abar); dagoeneko idatzita dago eta partida honen xedea da obra exekuzioaren urte anitzeko prozesu bati ekitea.



- **Galizia kalea- Santa Marinako igogailua – 40.000 euro.** Arrasateko udalerriko mugikortasun eta irisgarritasun planek jasotzen dute komunikazio bertikaleko esku hartze bana exekutatu behar direla udalerriko hainbat lekutan. Horietako lehenak ezartzen du, baita ere, lehentasun irizpide orientatibo bat, esku hartze horietako bakoitza aurrera ateratzeko orduan.

Kasu honetan, xedea da prozesuari ekitea beste puntu honetan, zeinak balioko duen Musakola eta Santa Marina auzoak bertikalki komunikatzeko. Proiektua idatziko da, datozen urteetan, obrak egin ahal izan daitezzen.

- **Udal ondarearen inbertsioen partida – 50.000 euro.** Partida hau urtero errepikatzen da aurrekontuetan, eta erabiltzen da udalaren ondare ondasunen mantentze arruntak ez diren jardunak finantzatzeko.

- **Ondare ondasunen erosketaren partida – 50.000 euro.** Partida hau aurrekontu guztietan jasotzen da, ondare ondasunen erosketa finantzatzeko, hala egitea iritziz gero.

- **Bide publikoen urbanizazioaren partida – 20.000 euro.** Partida hau da udal azpiegituren sareetako beharrei aurre egiteko. Ez dago jarduketa zehatzik definituta, eta ohikoa da urte barruan beharrak sortzea matxurak gertatzen direnean, edo beste arrazoiren bat dagoenean.

- **Gipuzkoa etorbidean (3. eta 4. faseak) espaloiak berritzearen partida - 20.000 euro.** 2019an 1. eta 2. faseak exekutatzen ari dira, eta lan horiek amaituko dira 2020an. Helburua da proiektua idaztea 2019ko amaieraren eta 2020ko hasieraren artean, gero lanak adjudikatzeko 2020ko azken lauhilekoan; horregatik, urte anitzeko izaera ematen zaio partidari.

- **Ezponda egonkortzearen eta Santa Teresa – Agerreko berrurbanizazioaren partida – 5.000 euro.** Interbentzioaren aurrekontu estimatu osoa da gutxi gorabehera 677.000 euro (), eta exekutatu behar bazen ere 2019an eta 2020an, Musakolan igogailuak eraikitze aukera aztertzen ari denez, jarduketa hori atzeratzen ari da. Jakin eta gero igogailuak non joango diren zehatz-mehatz, jarraitu ahal izango da proiektu hau gauzatzen.

- **Azokaren inbertsioen partida – 50.000 euro** – Azoka birmoldatzeko proiektuaren zuzentze lanak definitzeko, prozesu parte hartzaile bat egin da 2016-2017ko ekitaldietan. Prozesu horretan definitu ziren zer ezaugarri nagusi izango zituen udal azokak, eta 2019ko partidaren kontura adjudikatu gura da proiektua idaztea. Proiektua adjudikatu eta idatzi ostean, hura onartu eta gero, lizitazioa aterako da obrak exekutatzeko, eta helburu moduan planteatu da obrak hasi daitezkeela 2020ko bukaera aldera.

- **Haur parkeen partida, 80.000 euro.** 2020an lehentasunez proiektuak dira Santa Barbarako eta Euskal Herria parkeetako zoladura aldatzea (zoladura aldatzea, ez jokoena, uste baita oraindik egoera onean daudela), eta esku hartzea JL Inñarrako parke bietan, baita ere, aztertzea zer aukera dagoen “Parkour” bat jartzeko.

- **Asfaltatze lanen partida – 20.000 euro, beste urte batzuetan baino kopuru txikiagoa,** azken urteotako joararekin jarraituz, lanean ari gara udaltzaingoarekin elkarlanean udalerriko bide publikoetako zorua konpondu eta hobetzeko lanei aurre egiteko.



- **Argieriaren inbertsioen partida – 45.000 euro**, bilatzen ari gara energia eraginkortasun handiagoa. Azken urteotan, IDAE1 eta IDAE2 planen bidez ia 1.8000 luminaria aldatu dira udalerrian. Inbertsio horiek aparteko emaitzak izan dituztenez, eragina izan dute energia aurrezpenean eta kontratatutako potentzian, eta aldi berean dirulaguntza esanguratsuak lortzen ari dira.

- **Ikastetxeetako argiteria hobetzeko partida – 50.000 euro**, 2019an jarduketarik inportanteena izan da luminaria berriak jartzea Erguin eskolako solairu bietan (1. fasea), eta 2020rako, pentsatu da Erguin eskola amaitzea (2. fasea-amaiera) eta Bedoñabe eskolako lehen faseari ekitea.

- **Lorzaintzako inbertsioen partida – 18.000 euro**; helburua da mantentze ainguraketak jarri eta berritzea, ureztatze sistemak jartzea hanbat lorategitan, beste lorategi bat berritzea, eta egitura berriak jartzea faroletan eta beste euskarri batzuetan.

- **Hezkuntzako inbertsioen partida – 130.000 euro**. 2018an eskatu zitzaizen udal eraikinetan dauden ikastetxeei planteatzeko zer mantentze eta inbertsio premia zeukaten 2019ko eta 2020ko urteetarako. 2019an eskatutako obren zati bat exekutatu da, zehazki Bedoñabe eraikinean eta luminariak aldatu dira Erguinen. Hala ere, aurrekonturik ez dagoelako, ez da pintatu Erguin eskola, 100.000 euro inguruko aurrekontua duena.

Horregatik, 2020ko lehentasuna da Erguin ikastetxea pintatzea, komunak berritzearekin batera, zeintzuk oraindik ez duten proiekturik idatzita jakiteko benetan zer lan egin behar den.

Obra horiek egin eta gero soberakinen bat egonez gero, sailaren helburua izango litzateke eskolako jolaslekuak berritzeko obretarako eta sortu litezkeen urgentziazko obretarako.

Azken obra horiek egitekotan dirulaguntza eskaera aurkeztu beharko litzateke Eusko Jaurlaritzaren “Udalaguntza” programan, 2019ko urtean eskatu zen bezalaxe, ebazpenaren zain.

- **Kirol instalazioetako inbertsioen partida – 80.000 euro**. Diru kopuru esanguratsu batekin, antzemandako beharren artean aipatu daiteke Iturripeko kiroldegiko argiteriaren aldaketa, oraingo luminariak aldatzeko LED teknologikoak beste batzuez, argiteria hobetzeko eta energia kontsumoa gutxitzeko.

Egin nahi den beste jarduketa bat da kanpoaldean erabilera anitzeko kiroldegi kantxa bat jartzea, jendeari irekia eta uzten duena praktikatzeko hainbat kirol diferente.

Azkenik, partidaren beste zati bat geratuko litzateke, obrak egiteko edo ustekabeak konpontzeko, urtero gertatzen baitira (gimanzioetako ekipamendua, konponketa urgenteak klimatizazioan, segurtasuna, argiteria eta abar).

- **Musakolako kiroldegi berriaren proiektuaren partida – 25.000 euro**. Tokiko Gobernu Batzarrak 2017/03/1ean hartutako erabakiz eskatua Ezketa SLP enpresari Musakolan kiroldegi berri baten aurreproiektua egiteko, zeinak balioko duen, dagozkion foroetan eztabaidatu eta gero, markatzeko edo identifikatzeko zer ezaugarri bildu eta bete behar dituzten kirol instalazio berriek, idatzi nahi da, urte anitzeko izaeraz, 2020ko eta 2021eko ekitaldien artean, exekuzio proiektua, eta horretarako, esleitzen da lehen dotazio bat, 25 mila eurokoa, 2020an, osatuko dena gero partida



batekin 2021ean. 2020an abian jarri gura du udalak prozesu parte hartzaile bat, instalazietako erabiltzaileen beharrianak ezartzeko.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, proposatu da zabalik uztea aurrekontuan, kreditu gehigarri kalifikazioarekin aurrekontuak exekutatzeko arauetan jasoa, milioi bat euroan handitzea sinatu beharreko kredituen edo maileguen zenbatekoa (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar udalari egokitu dakizkiokeen konpromiso batzuei, inbertsio proiektuetan, zeinaren dirulaguntza portzentajea baita kostu osoaren % 40koa edo hortik gorakoa; horrela, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, ez da izango oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute. Hori guztia horrela, baina kontuan hartuta dagozkion neurri osagarriak hartu daitezkeela, indarrean dagoen araudia aplikatzeagatik aurrekontu egonkortasunari buruz, finantza iraunkortasunari buruz eta gastu erregelari buruz.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 777.006,40 euro

% 1,45eko gehitzea du, 2019ko aurrekontuaren aldean (-11,7 mila euro).

2019ko aurrekontuari dagokionez, **mantendu dira iaz zeuden partidak eta kontzeptuak** (diru laguntza igogailuak jartzeko /irisgarritasuna hobetzeko, ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko, kontzeptu hori gutxituz 2,0 mila euro 2019koaren aldean, horiez gain ekarpenak Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren inbertsioak finantzatzeko), zeinaren kopurua baita 520,0 mila euro (2019an baino 1,9 mila euro gutxiago).

Aspektu batzuk nabarmentzekotan, aipatu behar dira IDAe (1 y 2) programei buruzkoak:

J) Partida bat Mankomunitateak itzuli beharreko maileguak finantzatzeko, IDAE1 programaren ondorioz (argiteria publikoko luminariak ordezteko LED teknologiako beste luminaria batzuez), Arrasaten egindako jardunari dagokiona, zenbatekoa 466.176,22 euro, zeina EVEtik lortutako diru laguntza deskontaturik, 20.686,70 euro, esan gura du Eneria dibertsifikatu eta aurrezteko Institutu Nazionalari itzuli behar zaiola 445.489,90 euro. Ekarpenak egiten hasi zen, mailegua itzultzeko, 2018ko irailean, eta itzuli beharreko zenbatekoa, 2020ko aurrekontuaren kontura, 51.797,40 euro da, 2019an zegoen kopuru berbera.

IDAE2: azkenik ez da kontsignatu kopururik Mankomunitateak itzuli beharreko maileguak finantzatzeko, IDAE2 programaren ondorioz.

J) IDAE2k finantzatzeko zenbatekoa da 406.085,59 euro (IDAEk baztertu du 22 luminaria finantzatzea, hobekuntza moduan eskaintzan sartuta zeudenak, eta horrek ekarri du gutxitzea finantzaketaren 11.792,10 euro), eta EVEtik lortutako dirulaguntza deskontatuta, 36.077,86 euro, mailegua da 370.007,73 euro. Hala ere, maileguaren eskritura sinatu denez 2019ko azaro amaieran, eta gabezia urte bat dagoenez hura itzultzeko, hura itzultzen hasiko gara 2021eko urtarrilean. Data horretatik amortizatu beharreko urteko zenbatekoa izango da 45.120,72 euro 2028ko urtera arte, eta bukaerako kuota bat, 9.041,97 eurokoa, 2029ko urtean.



Azkenik, partida bat sartu da, 90.000 eurokoa, Mentu Multzoko garajeen goialdea iragazgaizteko obretan udalaren parte hartze ekonomikoari aurre egiteko, ordaindu behar zaiena Santa Marina kalea I. faseko (30-32-34) eta II. faseko (36-38-40-42) jabeen erkidegoei, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019/05/21ean, 2019/09/26an eta 2019/10/3an hartutako erabakien arabera, jardun irizpideak betetze aldera aurre egiteko orube pribatuetan egiten diren jardunei, gainazalean erabilera publikoko zortasuneko orube pribatuetan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.00 euro.

Kapitulu honetako dotazioa erdira gutxitu da, 180 mila eurotik 90 mila eurora.

2020ko urterako, ezabatu da Garaia S Coop.ko kapitalari egindako ekarpenen partida, izan ere, 2019an ekarpenak osatu dira, Garaia S.Coop.ko kapitalari udal ekarpenez ordaintzeko konpromisoak egiteko direnak, sortuak osoko bilkurako erabakietatik, 2010/10/07koa eta el 2013/12/17koa (ekarpenak kapitalak handitzeko, 1.000.000 € eta 331.527 euro, hurrenez hurren), ordainduak OHZko eta EIOZko zergez sortutako diru –sarrereren bidez, lortuak Garaia eremu horretan.

Hala, kapitulu honek garrantzi ekonomiko urria du gastu osoaren aldean, eta normalean bakarrik jasoko lituzke aurrekontu kredituak, langileen aurrerakinak finantzatzeko, 90.000 euroko zenbatekoa; era berean, horiek beste partida bat dute diru sarreretan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 23.941,47 euro

% 92,49 gutxitu da 2019an hasierako aurrekontuaren kopuruei buruz, izan ere, ekitaldi honetan aurrez amortizatu da 318 mila euroekin.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, estimatu da ez dela izango beharrezkoa mailegu berriak sinatzea, eta ez da espero 2002ko urtean diruzaintza tentsiorik egotea, ezta finantza desfaserik ere, ekarriko dutenak mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea.

Gogoratu dezagun urtarrilean guztiz baliogabetu zela 219an udalak indarrean zuen mailegu bakarra, sinatua Kutxabank entitatearekin. Hala, udalbatza berriak bere ibilbidea hasiko du finantza egoera desiragarri batean, ezinhobean, mailegu hipotekarik barik, horrela ez du zailtasunik izango edo baldintzarik izango erabakiak hartu behar dituenean.

Hortaz, amortizatzeko daude bi aurrerakin itzulgarri interes barik, eman zituenak bere garaian Euskao Jaurlaritzak, 23,9 mila eurokoa eta 10,3 mila eurokoa, hurrenez hurren, itzuli beharrekoak ordainketa bakar batean 2020annnnnnnn eta 2021ean. Hortaz, 2020rako, aurrekontuan jaso da 23,9 mila euroko kopurua, itzuli beharrekoa Eusko Jaurlaritzari.



Lehenago esandakoa gorabehera, hausnarketa moduan zorpetzearekiko baliabidea erabiltzeko, inportantea da hau guztia gogoan hartzea:

- Batetik, oraingo lege esparruak, aurrekontu egonkortasunari dagokionez, penalizatzen ditu, nola edo hala, zorpetze baxua edo ia zorpetzerik ez duten udalak (Arrasaten kasua da), ezen sartzen baita zorpetze txikiagoko dinamika batean → amortizazio baxuak → legezko gaitasun txikiagoa zorpetzeko. Ikuspegi horretatik eta albora utzi gabe oraingo araudiak baimentzen dituen salbuespenak (espero dezagun hobetzea foru aldundiak iragarritako arau aldaketak), ez du ematen oso logikoa denik zorpetze tasa txikiagoa, balio absolutuetan eta erlatiboetan, azken 40 urteotan, egotea legezko mugekin zorpetze berriak eskuratzeko. Argi dago egokia dela egitea joko arauen aldaketa bat, egokituagoak erakunde bakoitzaren finantza egoera errealei.

- Bestalde, aurreko ideiaaren kontraste moduan, ez dugu galdu behar begien bistatik joera bat dagoela mailegu baliabidea erabiltzeko udalaren aurrezte urriko egoera batean (azken aurrekontu ekitaldian ematen ari dena modukoa, hau da, diru sarrera arruntak ia estali ere ez dituenegian egiten gastu arruntak), nahiz eta abiatze egoera den zorpetze baxukoa, gertatu daiteke finantza zailtasunak sortzea, eta, baita ere, bideraezina izatea epe ertainera edo epe luzera. Azken batean, argi izan behar da zorpetzea ez dela aldagai bakarra, kontuan hartu beharrekoa, kontuan hartu behar dira ere ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren egitura eta izaera, baita ere, hartuta dauden konpromisoak, oraingoak eta gerokoak, eskainitako zerbitzuetan eta sortutako azpiegiturretan.

Azkenik, aurreko aurrekontuetan bezala, aztertu behar dugu zorraren eboluzioa, maileguz mailegu, 1991-2020 aldian, eta erabiliko ditugu 2020ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak. Halaber, zor hori lotuko dugu diru sarrera arruntekin, lortu direnak aurrekontuetako likidazioetatik (2096koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuetan oinarrituta, eta 2020koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), diru sarrera korronteen erreferentzia hori ulerturik udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.



MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2020 ALDIAN (MILA EUROAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	▲AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%
2016	2.362,6	--	714,8	1.642,0	-30,5%
2017	1.642,0	--	315,9	1.326,1	-18,9%
2018	1.326,1	--	973, 7	352,4	-73,5%
2019 (3)	352,4	--	318,2	34,2	-90,3€
2020 (4)	34,2	--	23,9	10,3	-69,9€

(1) – Mailegu berrizat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) – 2019ko aurrekontuaren itxierako estimazioen arabera

(4) - 2020ko aurrekontuko datuen arabera



Maileguen zorra lotzen badugu udalaren diru sarrera arrunt edo korronteeekin, eta 1919-2020 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:

DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2020 ALDIAN


EKITALDIA	ZORRA 12/31n	ESKUB. LIKID ERAG. ARRUN.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015	2.362,6	32.485,2	7,3%
2016	1.642,0	30.993,3	5,3%
2017	1.326,1	30.850,0	4,3%
2018	352,4	31.975	1,1%
2019 (itxiera estim. arabera)	34,2	32.120	0,1%
2020 (2020ko aurrek. arabera)	23,9	33.296,1	0,07%

(*) 2005az geroztik, aprobetxamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru sarrera arrunt moduan




Koadro biak aztertuta, ikusi genezake udalaren egoera ezinhobea, desiragarria, zorpetze aldagaiari dagokionez (finantza iraunkortasuna), aztertutako aldi osoaren unerik onenean baitago, bai balio absolutuetan, bai diru sarrera arruntei buruz, ulertuta udalaren ahalmen ekonomikoaren adierazpidea edo neurria.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguen zorraren aldagaiak 1990/2020 aldian eta diru-sarrera arruntek 1990-2020 aldian (2020. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera, mailegu berririk gabe)





1990/2020 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN





DIRU SARREREN AURREKONTUA - 2020

Aurrekontua da 34.829.173,25 euro, eta igoera da % 4,34, 2019ko aurrekontuaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2020ko aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2019ko ekitaldiaren aldean koadro hau daukagu:

2019-2020 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROTAN)

KAPITULUA	ARREK. 2020	GUZT. Z	ARREK. 2019	GUZT. Z	ALDAE RA.	2019/20
I - ZUZENEKO ZERGAK	7.208,5	20,70%	7.308,1	21,89%	-99,60	-1,36%
II - ZEHARKAKO ZERGAK	901	2,59%	601	1,80%	300	49,92%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.518	21,59%	7.342	22,00%	176	2,40%
IV TRANSFER. ARRUNT.	17.464,3	50,14%	16.631,1	49,82%	833,20	5,01%
V ONDARE SARRERAK	204,3	0,59%	188,4	0,56%	15,90	8,44%
VI ONDAREA SALTZEA	901,1	2,59%	875,1	2,62%	26	2,975
VII KAPITAL TRANSF.	542	1,56%	77,5	0,23%	464,50	599,35%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,26%	90	0,27%	0	0
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	0	0	266,1	0,80%	-266,10	-100%
GUZTIRA	34.829,2	100%	33.379,3	100%	1.449,7	4,34%


Koadro honen bidez egiaztatu daiteke zer aldaketa nagusi izan diren 2020ko aurrekontuan:


- Gutxitu da diru sarrerren kapituluaren garrantzia, udal fiskalitatearekin lotuak (I. eta III. Kap. – zergak eta tasak), zeina, aurrekontuko diru sarrera guztiei buruz, pasatzen den % 43,9tik % 42,3ra, erabaki konstziente baten ondorioa, hau da, ez handitzea udalaren zerga presioa, partzialki konpentsatua diru sarrera handiago batzuekin, espero direnak II. kapituluaren (EIOZ), pasatzen da % 1,80tik % 2,59ra, exekutatu beharreko obren bolumena apur bat bizitu izanaren ondorioz.
- IV. Kapituluaren (transferentzia arruntak) igoera izan da bai termino kuantitatiboetan (+833,2 mila euro) bai portzentaje terminoetan (pasatu da % 49,82tik % 50,14 izatera), 2019ko diru sarrerren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia dator 2020rako Foru Funtzaren diru bilketan aurreikuspen handiagoak daudelako (+593,5 mila euro 2019ko aurrekontuari buruz).



- Kapital operazioen garrantzia (VI. Kap. – ondareak saltzea eta VII. Kap. – kapital transferentziak), handitu egiten da apur bat, batez ere oinarrituta hirigintza operazio espezifikoetan eta Kulturolako obretarako dirulaguntzetan (diru laguntzak kalkulatu dira oso irizpide zuhurra erabilia), pasatzen baita % 2,85etik % 4,15era, nahiz eta jarraitzen duen izaten izaera testimoniala diru sarrera guztiei buruz, izan ere, ez da iristen izatera 4 euro, sartu diren 100 eurotik.
- IX. Kapituluak - zorpetzea desagertu egin da aurrekontutik, ez baitago ezer aurreikusita 2020ko urterako. Edozelan ere, kontuan hartu behar da aurrekontuan jasota badago ere zorpetzea, aipamenak baino ez direla aurrekontua koadratzeko. Izan ere, azken 8 ekitaldietan ez da kontratatu mailegurik.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2020ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa 2019ko aurrekontuaren aldean eta, bestetik, diru sarreren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa.





Azkenik, adierazi behar da udalak 2020an jaso behar dituen diru sarreretako 100 euro bakoitzeko:

- **44,87 euro dator udal fiskalitatetik** (diru sarreren I, II eta III. kapituluak).
- **50,14 euro dator** beste erakunde edo administrazio **batzuen diru laguntza arruntetatik**, horietatik 46,17 dator **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,59 euro** lortzen da **ondarezko diru sarreretatik** (alokairuak, interesak eta abar).
- **2,59 euro** espero da lortzea **ondarea saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **1,56 euro** lortzen da **inbertsioak finantzatzeko jasotako kapital diru laguntzetatik**.
- **0,26 euro** dator **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- 0 lortuko lirateke “teorian” **zorpetze** bidez, hau da, egin beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, estimatzen den ez dela beharrezkoa izango operazio berriak egitea, zeren, 2017ko itxieraren testuinguruan lortu beharreko funtsak, estimatzen baita nahikoak izango direla aurrekontua koadratzeko, jo barik kreditu berrietara.



Orain diru-sarrereren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA – ZUZENeko ZERGAK - 7.208.500 euro

Gutxitu da % 1,36, 2019ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2019ko benetako diru sarrerak eta ekitaldiko itxierako estimazioak. 2020ko Ordenantza Fiskalen gehitze orokorrak izan da % 0,6koa, (osoko bilkuran hartua 2019ko urriaren 1ean), eta foru arauak berretsi barik oraindik (seguruenik 2019ko aurrekontuak onartzearen foru arauaren barruan), adierazi behar da Euskadiko zerga koordinazioko organoak erabaki duela aplikatzea % 1ko eguneratzea katastro balioetan, eta horrek eragina izango du bai hiriko ondasun higiezinaren gaineko zergan (konpentsatzen da eraikuntzen balio galtzea/amortizazioaren eraginez gutxitzea), bai hiri izaerako lurren balio gehitzearen gaineko zergan (nahiz eta zerga horretan gutxituta geratu den apur bat haren intzidentzia Konstituzio Auzitegiaren epai baten eraginez, 2017/02/16koa, zeinak deklaritzen zuen transmisioak ez zeudela zergapean baldin eta ez bazen agerian jartzen balio gehitzea).

Hala ere, zerga presioaren gehitze txiki horrek ia ez du ondoriorik izango udalaren diru sarreretan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek 3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, zerga neurri jakin batzuk onartzeari buruzkoa, onartu izanaren ondorioz, zeinak berriro ezartzen baititu tokiko zergetan aplikatu daitezkeen onurak, lehenago jasoak 2/2004 Foru Arauan, apirilaren 7koa, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa, ezen edukia ematen baitio berriro 17. artikuluari. Horrek dakar udalerrian ezaugarri horiek dituzten hainbat entitatek lortu izana salbuestea Ondasun Higiezinaren gaineko zeran 2020tik aurrera; hortaz, ez da aurreikusten ezelako aldaketa esanguratsurik kapitulu honetako diru sarreretan.

BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGAK. 901.001,00 euro

Igotzen da praktikan % 50, 2019ko aurrekontuaren aldean. 2019an tamainako hainbat operazio egin dira, eta ekarri dute diru sarrera batzuk, bioztu dutenak aurreikusitakoa (1.300 mila euro, aurrekontuan jasotakoa zenean 600 mila euro, eta espero da ekitaldia ixtea zenbateko hori baino kopuru handixeago batez). 2020ko urterako, tamainako operazio hainbat jarri dira, eta espero da lortzea kopuru handiak, 9000 mila euro, nahiz eta ez den espero lortzea 2019ko kopuruak. Zerga honetan, haren ezaugarriengatik, erabili da irizpide bat apur bat “zuhurra” aurrekontuan, baina gertatu daiteke aurreikuspenetan desbideratze esanguratsu bat izatea (gorantz edo beherantz) eta horrek ekarri dezake ekitaldian egokitze batzuk izatea eta, hala badagokio, gastuen atalera lekualdatzea.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, eta horrek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2019rako, zerga tipoa legez baimendutako gehienez dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean). Lehenago adierazi bezala, komeni da gogoan edukitzea aurrekontuko kopurua lortzea dagoela udal kontrolatik guztiz kanpo dauden faktoreetatik, zehazki, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte (udal lizentzia behar dutenak), zenbateko gordina guztira 12 milioi euro. Hortaz, jarraipen bat egin beharko da kapitulu honetako exekuziotik



hurbil, aurreikusteko desfaseak eta egokitze beharrak, eraman daitezkeenak gastuen atalera, hori guztia aurrekontua orekatzea bermatze aldera.

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.518.000,00 euro

Igotzen da % 2,40, 2019ko aurrekontuaren aldean (176 mila euro), Udaleko Osoko Bilkurak erabaki baitu gehitzea 2020an tasak eta prezio publikoak % 0,6 eta % 1,8 ur horniduraren eta azpiegitura hidraulikoen zerbitzuan.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri moduan hartu da 2019ko benetako diru sarreraren informazioa, gehituta gertatu litezkeenak hemendik eta ekitaldia itxi arte.

Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiek, hala nola ur eta zabor tasak, enpresa hornitzaileek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak (kiroldegietako tasak), egiten dutela kapitulu honetako zenbatekoaren % 75,75, zehazki, 5,69 milioi euro.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 17.464.272,25 euro.

Balio absolutuetan handitu da 833,2 mila euro, 2019ko aurrekontuaren aldean, eta % 5,01 portzentaje terminoetan.

Gehitze hori azaltzen du arrazoi nagusi batek, dagoeneko aipatua memoria honetako hainbat ataletan, eta hori dator 2019rako Foru Funtsaren diru sarreraren estimaziotik; Arrasaterentzat da 16.004.487 euro, 593,5 mila euro inguru gehiago 2019ko aurrekontuan jarritako kopurua baino (▲% 3,85). Ikusita zer aurreikuspen egin diren Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren barnean, 2019/10/11n izandako bileran, 2019an itxiera estimazioa dator aldaketa positibo esanguratsu batekin, aurrekontuan jasotako kopuruei dagokienez. Arrasaterako, berriro diot, aurreikuspen izaerarekin, berretsi behar dena kontuen behin betiko itxieran, egingo dena 2020ko otsailean, izan daiteke pasatzea 15.411.007 eurotik, 2019ko aurrekontuetan hasieran aurreikusitako kopurua, 15.660.594 eurora, azken kopurua (▲% 1,6). 2019ko azken kopuru hori erreferentziatuz hartuta, foru funtsaren diru sarreraren aurreikuspena 2020an da % 2,20ko igoera bat iazkoaren aldean (-344 mila euro). Azken batean, berri ona da, ekarri dezakeena/ekarri behar duena aurrezkoa hobetzea eta inbertsioen finantzaketa marjina hobetzea.

2020ko kalkulua oinarrituta dago aurreikuspen batzuetan, Foru Aldundiak horri buruz egindakoak, zehazki % 3,28ko igoera batean, hitzartutako zergen diru bilketan, 2019ko aurrekontuko kopuru estimatuaren aldean. Aurrekontuko gehikuntza hori egotzi dakioke, funtsean, Foru Aldundiak berak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:

a.- Aurreikusten du ekonomia hazi egingo dela, termino errealean, % 3,9 hazi ere.

b.- Arauetan aldaketa jakin batzuk, eragina izan dezaketenak udalen artean banatzeko den funtsaren azken kopuruan. Beste batzuen artean, jasotzen da Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari



eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, zeina pasatuko den % 33,21etik 2019an % 33,34 izatera 2020an.

Kapitulua gainerako kontu sailetan erabaki da aurrekontuan jasotzea azken urteotan finkaturik dauden diru laguntza programen zenbatekoak, dagozkion aldaketekin, informazio eguneratuan oinarrituta. Aldaera horietan, merezi du ere nabarmentzea, kopuruagatik, gizarte ongizatearen sailarentzat direnak, eta horietatik etxeko laguntza zerbiturako ekarpena, zeina 2020an aurrekontuan zen 140 mila euroko diru sarrera batzuk (2019ko aurrekontuan jaso ziren 100 mila), Eudelen eta Foru Aldundiaren artean lortutako akordioaren ondorioz, zerbitzuetan eskumenak berriro izendatzearen testuinguruan eta zerbitzuaren eskarian gehikuntza berriro izendatzearen ondorioz, eta horrek dakar gastu handiagoa udalarentzat, eta neurri berean ez bada ere, dirulaguntza handitzea.

Diru sarreraren beste kontzeptu inportante batzuk izango lirateke EJren ekarpena Gizarte Larrialdietako laguntzak jasotzeko, 243 mila euro (aurrekontuko gastuan oinarrituta), Lanbide-ren diru sarrerak langileen kontratazioak finantzatzeko enplegu sustapeneko programetan, 140 mila euro, eta HABEren dirulaguntza udal euskaltegiko zerbitzuaren gastuak finantzatzeko, 380 mila euro.

Aipatu behar ditugu ere diru sarrera berezi batzuk, Europako funtsetatik datozenak, Lan "R" bai proiektuetarako, 98 mila euroko ekarpen batez, Interreg Shrec, 2020an dirulaguntza estimatua izango da 35 mila euro, eta azken eskaera bat, InterregTec4companies, onartzeke dagoena, 17.625 euroko dotazio batez.

BOSGARREN KAPITULUA – ONDAREZKO DIRU SARRERAK – 204.300 euro

Gehitu egin da % 8,44, 2019ko ekitaldiaren aldean.

Kapitulu honek ez du larregiko garrantzi espezifikorik udalaren diru sarreraren multzoan, non diru sarrera kontzeptu nagusia hartzen duten errentamenduek edo errentak, lortuak ondarearen bidez (kapitulu osoari buruz % 90,5). Gehitzearen jatorri nagusia dator Atxabalpeko kirol instalazioen alokairua berrizetik, errentan emanak hitzarmen bidez, sinatua 2018/01/16an Eibar SD taldearekin, urteko zenbatekoa (BEZ sartuta) 79,1 mila euro, eta nabarmen igotzen du lehendik indarrean zegoen hitzarmenaren errenta (17,7 mila euro urtean 2017an).

Gaur arte beste kontzeptu batek ere garrantzia izan du, udal diruzaintzan lortutako finantza diru sarrerak edo errendimenduak, nahiz eta espero den izatea 2020an egoera saneatua diruzaintzan, finantza erakundeak gaur egun oso gutxi ordaintzen ari baitira edo ez dute errentagarritasunik batere, hondar izaera dauka, urtean diru sarrerak 2020an 1 mila euro.



SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 901.100 euro

Handitu da % 2,97, +26 mila euro, 2019ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Komeni da segurutzat jotzea kapitulu honetan, aurrekontuko partidak eta zenbatekoak, gaur gaurkoz, bakarrik direla diru sarreraren espektatiba generiko hutsak, nahiz eta egon dauden espediente batzuk, aurreratzen dutenak hirigintza operazio batzuk gauzatuko direla (Uribesalgo pabiloia, AE39-Fagor San Andres eta abar) eta aurreikusi daiteke aurrekontuko aurreikuspenak lortu daitezkeela. Hau da, une honetan, Uribesalgoko operazioa izan ezik, ez dago operazio zehatzik, garapen maila nahikoa duena, esateko moduan seguru beteko direla 2020ko diru sarreraren aurrekontu aurreikuspenak.

Hori gorabehera, erabakitzen da 2019an izandako “antzeko” aurreikuspen batzuk sartzea, izan ere, 2018rako aurreikusitako operazioetako batzuk ez dira exekutatu eta aurreikusten da egin ahal izatea 2020an. Edozelan ere, babes neurri moduan, kapitulu honen exekuzioa jarraitu eta kontrolatu egin behar da, nahi gabeko desajusterik egon ezdadin ekitaldiko kontuetan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 542.000 euro

Handitzen da % 599,35, 2019ko aurreikuspenen aldean. Handitze hori gertatu da oinarrian Kulturoolako obrarako dirulaguntza osagarriaren aurreikuspen bana sartu delako (oraindik ez dago ebazpenik onartuta). 150.000 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik eta 200.000 euro Eusko Jaurlaritzatik.

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzari dagokionez, adierazi behar da udalak uko egin behar izan diola 2017an aitortutako dirulaguntzari (Kulturako sailburuordearen ebazpenaren bidez, 2017/12/29koa), 186.440,00 eurokoa, zeren emango zen baldin eta lanak exekutatzan bazien 2020/01/15a baino lehen. Horregatik, tramitatu da dirulaguntza eskaera berri bat, 2019ko programaren kontura, baina dirulaguntza berria jaso ahal izateko, derrigorrezko baldintza zen aurrekoari uko egitea. Horregatik guztiagatik, zelan ezin diren bete epeak eta aukera handia zegoen aitortutako dirulaguntza "galtzeko", udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019/10/31n hartutako erabakiaren bidez, erabaki zuen uko egitea 2017ko dirulaguntzari eta eskatzea berri bat 2019ko programaren kontura. Eskaera hori dago ebatzi barik.

Bestalde, aurreikusten da dirulaguntza bat jasotzea Gipuzkoako Foru Aldunditik, Kultura departamentuaren bidez, zeina aurrekontuan jaso baita 150.000 euroekin, nahiz eta ez egon ebazpenik dirulaguntzari buruz.

Bestalde, samurtze aldera, arin samar, zelan uztartu egon daitezkeen laguntza programetan, beste administrazio batzuek idatziak, eta horien kostuan udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuen exekuzio arauetan jaso da aukera bat, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko 2019ko ekitaldian sinatu beharreko maileguren zenbateko osoa, betiere diru laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak badira inbertsioaren bolumen osoaren % 40koak edo hortik gorakoak.



ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.000 euro.

Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu zen gastuaren kopuru bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 0 euro.

Aurrekontuan ez da jasotzen datorren urtean hitzartu beharreko mailegu berririk kontratatzea. Milioi bat auroan sinatu beharreko kredituak edo maileguak eskatzeko zabalik utzitako aukera izan ezik, aurreko urteetan bezala, kreditu gehigarriaren kalifikazioarekin, jaso aurrekontuko exekuzio oinarrietan, (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar udalari egokitu dakizkiokeen konpromiso batzuei, inbertsio proiektuetan, zeinaren dirulaguntza portzentajea baita kostu osoaren % 40koa edo hortik gorakoa, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, bihurtu ez dadin oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute. Hori guztia horrela, baina kontuan hartuta dagozkion neurri osagarriak hartu daitezkeela, indarrean dagoen araudia aplikatzeagatik aurrekontu egonkortasunari buruz, finantza iraunkortasunari buruz eta gastu erregelari buruz.

Azken batean, salbu eta ez bada gertatzen aukeraren bat dagoela inbertsio berriren bat egiteko era kofinantzatuan, ez da beharrezkoa izango datorren urtean zorpetzera jotzea.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko du zer aldagai eragiten duten udalaren zorpetze indizean, bai eta indize horren eboluzioa ere 1991-2020 aldian.



ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN 1991 – 2020 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n (5)	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8(3)	1,2%	26.072,0	8,5% (3)
2010	8.179,3(3)	1,52%	27.608,6	8%(3)
2011	9.144,5(3)	2%	25.631,8	10,1%(3)
2012	6.706,3(3)	0,75%	26.665,2	9%(3)
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015	2.362,6	0,40%	32.485,2	2,3%
2016	1.642	0,15%	30.993,3	1,1%
2017	1.326,1	0,15%	30.850,0	1,1%
2018	352,4	0,15%	31.975	1,1%
2019 (1)	34,2	0,15%	32.120,0	0,1%
2020 (2)	23,9	0,15%	33.296,1	0,07%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.

(2) Aurrek. datuen arabera ez da beharrezko jotzen 2019rako aurreikusitako mailegua

(3) Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFGatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren.

(4) Beheraka "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik.

(5) 2007 arte, benetako interes tipoa urte amaieran, 2008tik aurrera erabilitako interes tipoa, aurrek.etan hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko.



Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertatukoa, 2,4 miloi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korranteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2019, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta... ekitaldi bakoitzaren diru sarrera arrunten eboluzioaren arabera!! Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin dugun zorra kitatu eta gero.

Ez denez eskatu mailegu berririk 2011tik aurrera, interes tipoak egonkor jarraitzen duenez, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta azken urteotan diru sarrera arruntak hazi egin direnez apurka-apurka eta etenik gabe, behintzat, 2015era arte, zeina mantentzen den egonkor 2015/2020 aldian, elementu horien guztien ondorio bateratuak sortu du serie osoko zorpetze indize baxuenak izatea 2013-2020 aldikoak. 2016/2018 aldian mailegu bakarria dagoenez eta jarraitzen duenez egonkor interes tipoak, nahiz eta zorra jaitsi, mantentzen dira finantza kargak (amortiz.+ interesak), eta horrek esan gura du antzeko diru sarrera arrunt batzuekin zorpetze indizea ia ez dela aldatzen. 2019az geroztik, amortizatuta eta zorra desagertuta maileguetan, zorpetze indizea geratzen da ia ezerezera, ia "zero".

Honekin batera doan grafikoan ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).



BIZIRIK DAGOEN ZORRAREN, DIRU-SARRERAKORRONTEEN ETA ZORPETZE INDIZEAREN EBOLUZIOA 1991/2020 ALDIA

